

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inus Etxeberria Iraola

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Abuztuaren 31 kalean jaio zen, baina kaian bizi izan da umetatik Inusenzio; hasieran, Pixepelen. Aita eta ama donostiarrak zituen. Bost senide ziren. Ez zuen eskolara joateko aukera handirik izan. Gerra hasi zenean, ihesi joan behar izan zuten, eta Castron bizi izan ziren bost urtean; zortzi urterekin, arrantzara joaten zen aitarekin. Bueltan, aita Ondarretako kartzelan izan zuten aldi batean. Inus arrantzan ibili da beti; azken urteetan Azoresetara ere joaten zen, atunetara. Arraunlari trebea da, estropadetan hainbat sari irabazia. Aquariumaren aurrean dauden brontzezko bi kanoiak anaiak eta biek atera zituzten uretatik, aitarekin. Kaian bizi da.

Zintak

DON-084

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-24
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Zortzi urterekin, arrantzan

- **Erref:** DON-084/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Ez zen eskolara joan gerra aurretik. Zortzi urterekin aitarekin joaten zen itsasora. Arrantzalea zen, donostiarra. Aitona mutrikuarra. Ama ere donostiarra zen, kaikoa. Bost anai-arreba ziren; hiru mutil eta bi neska. Ia

denek egin zuten alde gerra garaian. Bilbora joan ziren bapore baten sotoan. Gero, Castrora.

2. Aita, Burgosen preso

- **Erref:** DON-084/009
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:10:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Pixepelen bizi zirela, tiroketak egon ziren. Aita Errepublikaren alde zegoen; Asturiaseraino joan zen. Harrapatu zutenean, Burgosera eraman zuten preso. Batzuek ihes egin zuten. Castron elkartu ziren, eta ia sei urte egin zituzten han. Aitak motor txiki bat zeukan, baina arraunean ibiltzen ziren. Donostiara bueltatu ziren gero, arraunean. Ondarroan egin zuten geldialdia, eta Getarian ere bai.

3. Aita, Ondarretako kartzelan

- **Erref:** DON-084/012
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Aitaren lagun bat falangista zen, eta jakin zuenean kartzelan zegoela ateratzera joan zen. Gimnasiako irakaslea zen.</p>

Transkripzioa

- Orduan in zuen ba, han maixua, gimnasiya iten zun maixu bat e? Lehortar bat e? Bere laguna, baiñon arrantzalia ez zan. Ta falangista zan berez. Oain, gizona jatorra e? Gure aitak esateko jatorra zala... Ta guk [...] beai, gure aiten lehengusu batek esan zionian: "oye, Luis, si está tu amigo el... le han llevau a esto... a Ondarreta", "¿qué?", jun zan bea hara, jun atia iriki ta kanpora.

- A bai e?

- Ordu erdi batian kanpoa, berekin. Ta gero ya ez zuten gehiyo molestatu.

- Horrek bazeukan orduan indarra.

- Bai, bai, fabrikak, "profesor de gimnasia" zan, Mixerikordiko "profesor de gimnasia". Baiñon nik ezautu det, asko ezautu det gizon hura, baiñon gure aitak esateko gizon ona zala... Orduan ez zian danak txarrak izango.

- Ez, ez, ordun'e bazegon ona ezta?

- Bai ba.

4. Militarrez inguratuta

- **Erref:** DON-084/013
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:14:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

Castron zeudenean, Carrero Blanco han zegoen. Aitari bizkarretik heltzen zion. Faxista gehien zegoen herrian egon ziren. Hasieran ziegara sartu zuten. Baina gero askatu, eta ez zuen arazo gehiago izan, arrantzara joan eta herri guztiari jaten ematen ziolako.

Transkripzioa

- Eta lehen esan didazu Castron egon ziñatenian han Carrero Blanco zebillela.
- Bai, han ezautu nun nik, teniente zan orduan. Ta urte gutxitan ya almirante. Ta han ezautu giñun, bai. Ta gure aitai ta moillan [...] ta bizkarretikan heldu ta gure aita "kauen dios" aber motibo gehio ez al daon. Noa etorriko da, eta faxista gehiyo zun herrira. Zeatikan handikan Santander aldea... Asturias harrapatu arte Kantabri guztiya ba al dakizu zer-nolakuak zian? Ta harrek. Ta jun ta seituan sartu zun perrerara, hango perrera batea. Ta geo atera in zuten ta itsaso ona zan ta herri guztiai jaten ematen zion gure aita eta. Herri guztiyai e?
- Horregatik atera zuten? Arraia...
- Ta geroztikan'e bai, "este hombre, si no está más que en la mar y...". Orduan harrek ez zun izer baliyo. Oliyoik ez zun iteko, ez iteko partitu dana. Ta geo hoyek nik esaten dituten hoiek, ba koño, ba gizon hau ta hola hor ez zuten gehio molestatu.
- Bai, ikusi zuten arrantzale ona zala ta...
- Eta borondate onekua! Ta libre laga zuten. Egun bat o bi in zitun perreran, besteik ez.

5. Eskolarik ez han eta ez hemen

- **Erref:** DON-084/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Castron ez zen eskolara joan, anaia bai. Aitarekin joaten zen itsasora. Hilabete joan zen eskolara. Ezkondu zenean, apaizak ez zuen ezkondu nahi dotrina ez zekielako. Mezetara ere gutxi.

6. Castrotik Donostiara

- **Erref:** DON-084/016
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:17:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Mutikotan, txipiroiak, arrain txikiak... harrapatzen zituzten aita eta biek motor txiki batean. Donostiara ihes egin zutenean Castrotik, komandantzian segituan konturatu ziren. Baporeak atera ziren bila, baina azkenean bakean utzi zituzten.

7. Donostiatik Bilbora

- **Erref:** DON-084/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:17:19. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bilbora iritsi zirenean, izeba baten etxera joan ziren. Bonbardaketak. Gernika bonbardatu zuten egunean jaio zen anaia gazteena, Algortako ospitalean. Bi-hiru egun egin zituzten Bilbon, Deustun. Hango gabarrero batekin ezkondu zen izeba.

8. Bueltan, etxerik ez

- **Erref:** DON-084/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Bueltan, etxerik ez. Maizterrak ziren, eta gero beste familia bat bizi zen han. Altzaririk-eta ez zuten berreskuratu. Juan de Bilbao kalean bizi ziren gero. Anaiak eskolara joan ziren.

9. Bapore handia erosi zuten

- **Erref:** DON-084/020
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:21:31. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Aitarekin ibili zen arrantzan, eta ezkondu ostean anaiarekin eta koinatuarekin ontzia erosi zuen. Eta gero bapore handia. Anaia zen patroia.

10. Uretatik kanoiak ateratzen

- **Erref:** DON-084/023
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Kanoiak nola topatu zituzten, brontzezkoak, ingelesak. Castrotik bueltan izan zen, 1944ko urrian atera zituzten uretatik. Aquarium aurrean daude. Ehun urtetik gora zituztela esan zuten adituek.

11. Kanoiekin zer gertatu zen

- **Erref:** DON-084/024
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Kanoiak non zeuden, hondartzatik gertu. Kanoia atera baino urtebete lehenago ontzi zahar bat hondoratu zen hantxe. Lehorreratu zutenean, berria zabaldu egin zen. Militarrek eraman egin zuten. Aita komandantearengana joan zen, eta hark dirua eman zion, Gabonetarako.

12. Kanoien joan-etorriak

- **Erref:** DON-084/025
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:29:14. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Kanoiak Madrilera eraman zituzten, gero San Telmoko museora, handik gaztelura eta gero Aquarium aurrera. Beste bat ikusi zuten, Perla aurrean, baina ezin izan zuten atera.

13. Lehen askoz ontzi gehiago

- **Erref:** DON-084/026
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

29-30 ontzi ezagutu ditu kaian, denetarakoak. Bapore handiekin Azores arte joaten ziren, atunetara. Atunaren arrantza noiz den. Gasoilaren arabera egiten zuten buelta. Zer jaten zuten. Ardo barrikak. Barkuan 15-17 lagun egoten ziren. Txalupa mutilak.

14. Atunaren arrantza

- **Erref:** DON-084/027
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

Atuna karabelekin eta kasan harrapatzen zuten. Beita moduan antxoa, sardina... Kasan egiteko aparejua: amua txurikiña zen, arto azala. Ura eta lejiarekin, zurituta, eta gero orraztu egiten zuten arto azala. Apareju bakoitzean amu bat, baina 9-11 apareju. Kanabera, pita batekin eta amua; biberotik beita bota, aurretik, eta ura ere bai. Amutik kentzea.

15. Egurrezko eskalaproiak

- **Erref:** DON-084/029
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:38:43. **Bukatu:** 00:40:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Egurrezko eskalaproiak, larruarekin. Gomazkoa irten zen gero, eta hobe zen. Sardina, antxoa, berdela... sasoi bakoitzean berea. Txitxarroa urte osoan egoten da. Berdela ez.

Transkripzioa

- Nik neguan ezautu det eskalaproia eurrezkua hemen ta larruakin josiya gora arte.
- Eskalaproia?
- Egurrezkua e!
- Egurrezkua e?
- Bai. Hau egurra balitza bezela, ta geo hemendikan gora larrua txintxetakin josi ta honea arte. Bañon alperrik zan. Honea arte ura alleatzen bazan, txintxetatikan bota urez bete-bete itea.
- Orduan, ez zan hori sistema ona?
- Ez. Geo, gomakua ata zanian bai.
- Gero gomazkua hobeto.
- Bai.
- Eta beste arrantzarik hola iten zenutena? E... berdela eta...
- Bai. Sardina, antxua... segun ze epoketan arrain diferentia eoten da. Oan, berdela. Geo, etortzen bada edo etotzen ez bada antxua. Geo, txitxarrua urte guziak eoten da itsasuan. Berdela ez. Berdela urtian behin etortzea. Oaingo sasoyan. Hemendikan hillabete o iual lehenuo ez dezu /eztezu/ aleik e gehiyo ikusiko! Horrek... hori sartzea hemen norteko aldetikan ta kostai buelta emateyo ta ihes iteu. Ez danak arrapatzeyalako e! "Ya no hay verdel". Ez arrapatzeko danak. Be denboan alde iteulako. Uxuak eta bezela igual-igual-igual.
- Bai. Migraziyuak.
- Bai.

16. Bisigua, eskuz

- **Erref:** DON-084/030
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:43:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Bisiguaren arrantza, eskuz. Neguan. Hotza egiten zuen. Hondo handian ibiltzen ziren, hiru-lau amurekin. Bisigua eta legatza, berdin harrapatzen dira. Sardina erabiltzen zuten beita gisa. Tretza palangrea bezala da, eta bisigutan ere erabiltzen da, baina eskuz egiten zuten beraiek. Kala asko daude. Gaxtelu, Garro, Exkote... Amuarekin ez da arraina zigortzen, baina arrasteko sareekin bai.

17. Distantziak nola neurtu

- **Erref:** DON-084/031
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:43:29. **Bukatu:** 00:44:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

<p>Distantziak nola neurtzen ziren, mendiei begiratuta. Sonda beharrik ez du zenbat brazara dagoen jakiteko. Behe-lainoa baldin badago zaila da.</p>

18. Antxoaren arrantza

- **Erref:** DON-084/036
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:49:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoaren arrantza, etxetik bi-hiru ordura. Begiz igartzen zuten antxoa non zegoen. Sarda ur azalean ibiltzen da batzuetan, eta ez zenean ikusten gauez aurrera joan eta ardora ikusten da. Sarea nola bota. Sardina berdin harrapatzen da. Antxoa asko, sororako ere bai.

19. Antxoa deskargatzen

- **Erref:** DON-084/038
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:50:09. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Antxoa ontzitik ateratzeko nola egiten zen. Neurria arroa batekoa, arrain txikiarentzat. ez zen kaxetan saltzen lehen. Tinetara ere sartzen zen antxoa. Eskuz eramaten zen arraina, milotarrekin. Donostiako portuan zegoen arrain gehien.

20. Arrainaren salmenta

- **Erref:** DON-084/039
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Benta emakume batek egiten zuen. Kanpaitxoa jotzen zuen, eta inguruan jartzen zitzaizkion. Prezioak esaten zituen, askotan euskaraz. Zaragozakoak eta nafarrak etortzen hasi zirenean, erdaraz.

21. Pixonera eta saregileak

- **Erref:** DON-084/041
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:53:48. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Pixonerak baporeko kontuak eramaten zituen. Nork erosi zuen. Saregileak, bapore bakoitzak bereak. Sareak tindatu egiten ziren, ez usteltzeko. Urtean igual 10-12 aldiz egin behar zen hori. Moilan zabaltzen zituzten, paseo berrian ere bai. Tinta nola berotzen zen.

22. Irabazien banaketa

- **Erref:** DON-084/042
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:57:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Jornalak. Erdia baporearentzat eta beste erdia marinelentzat. Patroiaren etxean egiten zen banaketa. Lehorrekoek baino gehiago irabazten zuten, baina lan gogorra zen. Emakumeen lanak.

23. Sirenak eta kanpaiak

- **Erref:** DON-084/044
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:57:44. **Bukatu:** 01:00:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Sirena derrigorrezkoa zen itsasontzietan. Kanpaiak ere erabiltzen ziren, gauez. Etxeetan txilinak egoten ziren, arrantzaleei deitzeko. Kalerainoko soka. Patroia joaten zen etxez etxe. Lehen giltzarik ez zen behar etxera sartzeko. Orain ezingo litzateke hori egin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com